

ESTATUA DEL CÉLEBRE ALMIRANTE

# OKENDO

Or... Ulia mendiko itsas ertzian
mundura jago ziñan, zorionian,
gloriyaz betetzeko gure erriya
kantauriako perla dan Donostiya
Pernanbukon, Las Dunas, alde danetan
gizon paregabia ontzi gudetan,
Kondairak deitzen dizu: ¡garaiteziña!
¿nor zan zure aurrean jartzeko diña?
Bágak eta anchétak seaskatikan
ikusi zenituen: denborak joanik....
¡gaur ere or dabiltza zure ondotik...
gau eta egun, tallunz ingurutikan
kantari beti!.... ¿zer gauz ederragorik?
¡Zurriolako jabe zera osorik!

Antonio Arzác.